

TURISMOAREN KONTU SATELITEA. 2017(a)

Euskal AEko gastu turistikoa BPGren %6,1 izan zen 2017an, %3,9 gehituz

Turismo hartzailearen gastua guztizkoaren %53 izan zen, 2016an baino puntu bat gehiago

Euskal AEn 2017an egindako turismo-gastua %3,9 gehitu zen 2016aren aldean, Eustaten datuen arabera. Termino absolutuetan, iragan zen 4.305 milioikoa izatetik 2016an 4.474 milioikoa izatera 2017an. BPGren %6,1 izan zen 2017an turismo-gastua, 2016an baino ehuneko hamarren bat gehiago eta zazpi gehiago 2010ean baino. Espainian turismoaren pisua BPGren gainean %11,7koa izan zen.

Turismo hartzaileagatik, batez ere, gertatu da gastuaren igoera hori (+%5,9); alegia, Euskal AEn atzerritarrek edo Estatuko gainerako pertsonak egindako gastuagatik. Halaber, neurri txikiagoan, *Turismo-gastuaren bestelako osagaiengatik* (+%1,8). 2017an turismo hartzailearen partaidetza gastuaren osotasunean %53ra iritsi da, 2016an baino ehuneko puntu bat gehiago.

Euskal AEko BPGra turismoak egindako ekarpena. Balio absolutua eta portzentajea. Uneko prezioak. 2010-2017(a)


	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017(a)
Turismoko gastua, guztira	3.618.945	3.706.425	3.799.935	3.803.144	3.921.201	4.119.211	4.305.184	4.473.562
Turismo hartzailea	1.712.795	1.782.052	1.875.625	1.898.298	1.988.273	2.097.648	2.238.422	2.370.390
Turismoaren beste osagai batzuk	1.906.150	1.924.373	1.924.310	1.904.846	1.932.928	2.021.563	2.066.762	2.103.172
Turismoko gastua, guztira (%)	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Turismo hartzailea	47,3	48,1	49,4	49,9	50,7	50,9	52,0	53,0
Turismoaren beste osagai batzuk	52,7	51,9	50,6	50,1	49,3	49,1	48,0	47,0
BPGaren (m.p.) gaineko ehunekoa								
Turismoko gastua, guztira	5,4	5,5	5,8	5,8	5,9	6,0	6,0	6,1
Turismo hartzailea	2,6	2,7	2,9	2,9	3,0	3,0	3,1	3,2
Turismoaren beste osagai batzuk	2,8	2,8	2,9	2,9	2,9	3,0	2,9	2,9

Iturria: Eustat. Turismoaren kontu satelitea
Oinarria 2015
(a) Aurrerapena

Turismo-gastuaren bestelako osagaiak izeneko partidari jasotzen da Euskal AEko turista eta txangozaleek erkidegoan bertan egiten duten gastua, Euskal AEko administrazio publikoek turismoari loturiko programetan egindako gastua eta turismoaren adar berezietako enpresen kapital-eraketa gordina (inbertsioa).

Behin alderatuz turismo hartzailearen gastua (Euskal AEtik kanpokoen bidaiak eta txangoak erkidegoan) eta igorlearena (Euskal AEko biztanleen bidaiak eta txangoak kanpoan), ikusiko gendake ezen defizita izan zela 2.480 milioi eurokoa, BPGren %3,4 2017an, handituz hirugarren urtez jarraian turismo-saldoaren defizita.

Zehazkiago, 2017an azpimarragarria da turismo igorlearen gastuaren eboluzio dinamikoagoa (+%6,9) hartzailearen aurrean (+%5,9), zeinarengatik turismo-saldo negatiboa 179 milioi eurotan handiagotu baita.

Euskal AEaren turismo-fluxuen saldoa


Iturria: Eustat. Turismoaren kontu satelitea

Bizkaiak garrantzia hartzen du Euskal AEko turismo-gastuaren guztizkoaren gainean, nahiz eta Gipuzkoan duen eragin handiena

Bizkaian gastu osoaren %44,9 egin zen 2017an; Gipuzkoan, %41,3; Araban, %13,8. 2016aren aldean eboluzioa positiboa izan da hiru lurraldeetan, nahiz eta Bizkaian izan den hobe, zeinek irabazi baititu horrela pisuko 6 hamarren Euskal AEko turismo-gastuaren guztizkoaren gainean, Gipuzkoaren kalterako. Arabak 2016an zeukan partaidetza-kuota bera du mantendu. Zehazki, Bizkaiak %5,4ko igoera erregistratu zuen turismo-gastuan, 1,5 puntu batezbestekoaren gainetik; Araban hazkundera %3,1ekoa izan da eta Gipuzkoan %2,6koa.

Turismoak euskal ekonomiari egindako ekarpena, lurralde historikoaren eta urtearen arabera. BPGaren (m.p.) gaineko balio absolutua eta ehunekoa. Uneko prezioak (a). 2010-2017

	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017(a)
TURISMOKO GASTUA								
Euskal AE	3.618.945	3.706.425	3.799.935	3.803.144	3.921.201	4.119.211	4.305.184	4.473.562
Araba/Álava	507.920	543.392	571.949	551.456	563.089	579.464	596.885	615.514
Bizkaia	1.573.132	1.623.525	1.661.834	1.680.990	1.724.166	1.823.481	1.905.175	2.008.809
Gipuzkoa	1.537.893	1.539.508	1.566.152	1.570.698	1.633.946	1.716.266	1.803.124	1.849.239
EHUNEKOAK								
Euskal AE	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Araba/Álava	14,0	14,7	15,1	14,5	14,3	14,1	13,9	13,8
Bizkaia	43,5	43,8	43,7	44,2	44,0	44,2	44,2	44,9
Gipuzkoa	42,5	41,5	41,2	41,3	41,7	41,7	41,9	41,3
BPGaren (m.p.) gaineko ehunekoa								
Euskal AE	5,4	5,5	5,8	5,8	5,9	6,0	6,0	6,1
Araba/Álava	4,8	5,0	5,3	5,2	5,2	5,2	5,2	5,1
Bizkaia	4,6	4,8	5,0	5,1	5,1	5,3	5,3	5,4
Gipuzkoa	7,0	7,0	7,2	7,3	7,4	7,6	7,7	7,6

 Iturria: Eustat. Turismoaren kontu satelitea
 2015 Oinarria
 (a) Aurrerapena

Gipuzkoan du oraindik ere turismoak pisurik handiena ekonomian, beste bi lurraldeen protagonismoa goranzkoa izan arren. 2017an turismo-gastua Gipuzkoan haren BPGren %7,6 izan zen (aurreko urtean baino hamarren bat gutxiago); Bizkaian %5,4koa izan zen adierazle hori (historiako gorena); Araban, %5,1ekoa, hamarren bat ere gutxiago 2016an baino.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62